



**Okendo plaza dantzan jarri dute iraileko azken igandean.**– Kukuka, Erketz eta Ttakunek elkarlanean egindako lanari esker, dantza egiteko aukera izango da Okendo plazan hilabete bakoitzeko azken igande guztietan. Euskal dantza tradizionalakiko zaletasuna piztu eta dantza eginez ondo pasatzea dira plaza-dantzaren helburu nagusiak. Orain arte Hendaian, Erreterian edo Donostian egiten ziren halako ekimenak esate baterako, eta atzotik aurrera baita Lasarte-Orian ere. Denera 50 bat lagun iten ziren plazara iraileko azken igandean muxikoak dantzatzera, batzuek etxetik ikasita zekartzaten pausok, eta beste batzuek aldf, egunean bertan ikasteko aukera izan zuten aurrekoak egiten zena jarraituz. Azken finean, lainotu samar zegoen igande eguerdirako plan polita izan zuten herriartek bazkaltzera Joan aurretik. Bi orduz luzatu zen hitzordua, eta antolatzaileak kontent ziren jendeak emandako erantzunarekin. Gonbidapen bat ere egin nahi izan zuten ekimenaren sustatzaileek, hilabeteko azken igandetan plazara gerturatzeko deia luzatu zieten lasarteoriatarrei, alegia, konplexu eta lotsak etxean utzita, Okendoko dantzetan parte-hartzera gonbidatu zituzten herriarrak.

### 3 GAZTETXOAK

#### **Kuadrillategi eta Gazte Klubaren ikasturte hasiera**

Aurten ere hainbat ekintza dibertigarri egiteko aukera edukiko dute herriko gaztetxoek Ttakunen eskutik. Ostiralean izango da Gazte Klubaren lehenengo saioa Eribera kaleko lokalean. Kuadrillategiok ere egun horretan dute lehenengo hitzordua, Okendo plazan bilduko dira.

### 5 ARGIA

#### **Argia aldizkariaren aldeko notak Manuel Lekuonan**

Argia aldizkaria sostengatzeko kontzertua izan zen ostiral gauekoa. Larunbatean Usurbilen ospatuko zen Argia Egunaren bezperan egin zen emanaldia, aldizkaria eta udalerriarekin harremana estutu amoz euskarazko kazetaritza independentea babesteko helburuarekin.



**Ostiralean, urriaren 3an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Urriaren 6an izango da hurrengo zenbakia. Herriko informazio guztia txintxarri.info-n**

**DESKONTU IKAPAGARRIAK!!!!**

**PLAN RENOVE**

**125€-rainoko subentzioa elektratresneko!**

**Bideo Lagunak** TIEN 21

**Etiketoresna elektrikoetan**

**Irailaren 29-tik aurrera agortu arte**

**12 hilabeteko finantziaketa interesik gabe**

**Etiketoresna elektrikoetan adituak**

Donostia etorbidea 2 | Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etzeko txorizoa Tripakiak- Saltxibak

Txistorra Basurde burua

Baserri pate

**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria

Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

OSASUNA

# Hasi dira Ondo ibili egitasmoko ekitaldiak

*Ibilalditxoa egin zuten ostiralean adineko pertsonen, Okendo plazatik atera eta Atsobakar auzoraino*

Eguraldi ona lagun, 2.200 metro inguruko ibilalditxoa egin zuten hogeita hamar bat adineko pertsonen, joan den ostiralean. Okendo plazatik atera ziren goizeko hamaikak pasatxo, eta ordu erdiren buruan iritsi ziren Atsobakar auzora. Udaleko eta udal kiroldegiko ordezkari, elkarte desberdinetako boluntario eta Osakidetzako langileen laguntza burutu zuten ibilbidea.

TXINTXARRI

Ibilalditxoiari ekin aurretik, oihitua den moduan, talde argazkia. Irudian, hogeita hamar bat pertsona, Okendo plazatik Atsobakarrera paseoa emateko prest. Irribarra aurrepegiaren eta txaleko laranja soinean zutela ekin zioten Atsobakar izeneko ibilbideko 2.200 metroko egitari.

Pablo Barrio alkateak, Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuen Arloko Arduradunak, hainbat boluntario eta Osakidetzako langileen laguntza izan zuten adineko pertsonen ibilalditxoko horretan. Ez zen ezbehar aipagarriarik gertatu ibilbide osoan zehar.

Okendo plazatik Eusko Trenera bidea hartu zuten, herriko kaleei kolore laranja emanaz. Tren geltokira iritsi, Garaiakoetxea ikastetxea pasa eta Atsobakar auzora iritsi zuten. Sorpresatxoa jaso zuten bertan ibiltariei; zain zeuketen beste taldetxo bat Urbarte parkean, ibilaldiaren azken zatia egiteko prest. Une horretan denak batu zirela probestuta, beste talde argazki bat atera zuten parkean bertan.

Ibilaldia amaitu zenean, egitasmoaren aurkezpenaren azaldu bezala, ibilaldia burutu zuten adineko pertsonen ziguilu bat jarri zieten erreze-ten liburuxkan.



Ostiraleko ibilaldian hogeita hamar bat pertsonak hartu zuten parte.

## Hiru ibilbide gehiago

Joan den ostiralekoa izan zen Ondo ibili egitasmoaren barruko lehenengo ibilaldia. Ez da azkena izango ordea, beste hiru zirkuitu ere prestatuta daudelako: Zubietako (2.754 metrokoa), Oria (4.000 metrokoa) eta Plazaola (4.800

metrokoa). Aste honetako ostiralean egingo dutena Zubietako izango da. Aurreko astean bezala, goizeko 11:00etan aterako dira Okendo plazatik. Paseoa bukatzean, beste ziguilu bat jarriko diete ibiltariei Osakidetzako mediku eta erizainek.

Ostiraleko ibilaldiak ez dira Ondo ibili proiektuko ekitza bakarrak. Asteartean ere izango dute zer egin adineko pertsonen: mota desberdinetako ariketako egingo dituzte monitore baten laguntzaz, Nagusien Kirol Parkean dauden makinetan.

## Zabaletak ongi-etorria eman dio Udazkenari

Ongi-etorria eman zioten zabaletarek Udazkenari, eta agurra Udadari. Horixe ospatu zuten Zabaletan ostrialunabar partean, urtaro aldaketa.

Ohi bezala, Zabaleta Auzolan batzordeak antolatuta, sardina-jana egin zuten Antonio Blas Plazako lokal aurrean. Haurrak, gazteak, helduak... adin guztiak jendea bertaratu zen plazara eta edeki pasa zuten berrikerian eta kontu-kontari.

Denera 30 bat lagun batu ziren sardinak afaldera ardo on baten edo sagardo freskoaren konpainian eta batzuek afalostean Argia Egunaren bezperako kontzertuetara joateko aprobetxatu



Zabaletarek urteroko sardina-jana egin zuten Antonio Blas Plazan Udal Musika Eskolako trikitilari gaztetoek girotuta.

zuten ostiral egunari amaiera emateko.

Aurten gainera, Udal Musika Eskolako gaztetoek

izan dira Zabaletako bazter-rrak pandero eta trikitixa doinuez girotzen, urtaro beroena joan zaigun arren, umore



onari utsi nahi izan zioten musikaren laguntzaz Zabaletako lagunak.

Udazken festaren antola-

tzailek bihotzez eskertu nahi izan zieten Udal Musika Eskolako musikariei giroa alaitzen lagundu izana.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkarteak  
Maider Azurmendi, Jon Altuna  
E-Itigo Kortalez  
txintxarri@txintxarri.info  
Publizitatea eta administrazioa:  
Aiantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administratioa@ttakun.com  
Laguntzaileak:  
Unai Muñoz, Corika Lasa,  
Ane Labako, Itziar Amati, Asier  
Odnizola, Jose M. Hernandez,  
Jesux Artzeza, Pako Azpitarte, Edu  
Calaré  
Informatikoa:  
Xabier Amadoz

#### txintxarri

#### Eredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna  
E-Itigo Kortalez  
txintxarri@txintxarri.info  
Publizitatea eta administrazioa:  
Aiantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administratioa@ttakun.com

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Corika Lasa,  
Ane Labako, Itziar Amati, Asier  
Odnizola, Jose M. Hernandez,  
Jesux Artzeza, Pako Azpitarte, Edu  
Calaré  
Informatikoa:  
Xabier Amadoz

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

AISIA

## Gazte Kluba martxan berriro

Ostiral honetan izango da lehenengo saioa, 17:30ean



Postre txapelketa izan zen joan den ikasturtean Gazte Klubak antolatuakoko ekintzetako bat. Okendo plazan egin zuten.

Aurten ere hainbat ekintza dibertigarri egiteko aukera edukiko dute herriko gazte txoekek, martxan delako Gazte Kluba, Ttakunen eskutik. Ostiraletan izango da lehenengo saioa, 17:30etan hasi eta 19:30ak arte, Erribera kaleko lokalean. Kuadrilategiokoe ere egun horretan dute lehenengo zita: Okendo plazan bilduko dira 15:30ean DBH 1 eta 2. mailakoekin; 3. eta 4. mailakoekin, 16:30ean.

TXINTXARRI

Ostiralak egun are bereziagoak izango dira hemendik aurrera herriko gazte txoekek, aukera edukiko dutelako Gazte Klubaren eskutik milaka ekintza eta jolas eginez, ongi pasatzeko. Ostiral honetan bilduko dira lehenengo aldiz, Erribera kaleko lokalean, 17:30ean. Saioa handik bi ordura bukatuko da, 19:30ean.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, egun horretan bertan

eman beharko dute haurrek izena, Erriberako lokalean. Aurtengo ikasturteari ekiteko, "Body alphabet" izeneko egitasmoa antolatu dute; gazte txoekek hainbat forma eta irudi egin beharko dituzte, euren gorputzak baliatuta.

Ekintza hori egiteko, antolatzaileek ohartarazi dute haurrek zenbait gauza eraman beharko dituztela etxetik. Hiru ezaugarri eduki beharko dituzte gauza horiek: koloretsuak izan beharko dute, buruaren tamaina baino handiagoak, eta

gazte txoekek gustuko dituzten gauzak.

Gazte Kluba 9 urtetik 12 urtera arteko gazte txoekeentzat zuzendutako ekimena da, Ttakun elkarteak beste urte batez abian jarri duena. Beraz, herriko gazte txoekek Gazte Klubean ongi pasatzeko aukera izango dute aurten ere.

### Kuadrilategi ere prest

Ostiral honetako izango dute lehenengo hitzordua Kuadrilategiokoe ere. Okendo plazan bi bilera egingo dituzte. 15:30ean egingo dute lehenengo, DBH 1go eta 2. mailakoekin. Handik ordubetara beste bilera bat egingo dute DBH 3. eta 4. mailakoekin. Antolatzaileek esan dutenez, bertan erabakiko dituzte talde eta ordutegiak.

TXAPELKETA

### Casa del Pueblo'n tute txapelketa

Lasarte-Oriako Casa del Pueblo-n bigarren urtez, tute txapelketa antolatu dute. Honetan bikoteka parte hartu beharko da eta aurrez izena eman beharko da urriaren 10 baino lehen.

Txapelketa urriaren 17an hasiko da eta izena ematen duten bikote kopuruaren arabera egutegia antolatu da. Lehenengo hiru bikoteek saria izango dute.

HITZALDIA

### Mahai ingurua bihar Manuel Lekuonan

Ostiraleko Txintxarri argitaratu genuen EHBilduk antolatuako mahai ingurua asteazkenean izango zela. Okerreko informazioa eman genuen izena, hitzaldi hau bihar, irailak 30 asteartea izango da 19:00etan Manuel Lekuonan.

EHBilduk "Europako askapen mugimenduetan ezkerretik" mahai ingurua egingo du Manuel Lekuonan asteartean. Honetan parte hartuko dute Pat Rice Irlandako Sinn-Fein alderdiko mahai nazionalako kide ohia, Pernando Barrena EH Bilduko kideak eta Kataluniako CUPeko ordezkari batek. Moderatzaile lanetan ariko da Independentistak sareko Unai Apaolaza.

Mahai ingurua irekia izango da eta herritarrek honetan parte hartzea animatzen dituzte sustatzaileek.

EUSKARA

### Solaskiden izen emateko aukera

Ikasturte hasierarekin batera, solaskide programa ere martxan hasiko da urrian. Honetan parte hartu nahi duten herritarrek dagoneko aukera dute izena emateko. Ttakunek kudeatzen du Euskal Herri mailako mintzapraktika egitasmoa herrian eta informazio gehiago eskuratzeko edota izena emateko Ttakuneko bulegotik pasa behar da.

Euskaldun berri zein hauen bidelagunak izango diren euskaldun zaharrek dute aukera egitasmo honetan parte hartzeko.

MUSIKA

### Alboka Txikin izena emateko aukera

Alboka Txiki Abesbatzak bere izen-emate epea zabaldu berri du 2014-2015 ikasturterako. Eskaintza 6 eta 14 urte arteko gazteentzat dago zuzenduta. Abesbatza parte hartu nahi duten guztiak edo informazio gehiago eskuratzeko, info@albokaabesbatza.com helbidera idatzeko eskatzen dute Albokatik.

Mezuan haurraren izen abizenak, gurasoen izen abizenak eta telefono zenbaki bat idatzi beharko dira. Arduradunak telefonoz jarriko dira harremanetan bakoitzarekin ikasturtearen hasiera noiz den jakitera emateko.

POLITIKA

### Rafa Diezen helegitea atzera bota zuten Auzitegi Konstituzionalak

Espainiako auzitegi konstituzionalak atzera bota zuten ostiraletan Rafa Diez herritarrek aurkeztutako helegitea.

Bateragune auziko beste zigortuei bezala. Diezi sei urte eta erdiko kartzela zigorra eta hamar urteko kargugabetzea ezarri diote. Rafa Diezek gaiko zuten ama zaintzeko espesetik kanpo denboraldi bat egin zuten eta horregatik, besteak baino 17 hilabete gutxiago egin ditu espesetean.

DANTZA

### Plaza dantza ikasturte hasiera

Ttakunek aurten plaza dantza ikasturte egin nahi dutenentzat bi talde antolatu ditu. Asteazkeneko taldearentzat urriaren 1ean izango da lehenengo saioa 20:00etan Sasoieta ikastetxean. Talde hauek irekiak dira eta entsugegunetan joatearekin nahiko izango da.

Dabid Egizabalek gidatuko du asteartean, muxikoak utzi gabe, batez ere plaza dantza landuko dituen taldea eta asteazkenean berriz, Javi Fernandez de Lezeak hartuko du lekukoa hasiberri edo muxikoekin jarraitu nahi dutenentzat. Saioak 20:00etatik 21:30era egingo dira.

## Euskadiko andaluziarren topaketa herrian

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak urrian antolatu ohi duen aste kulturaren baitan, aurten Euskadiko andaluziarren topaketa egingo da gurean.

Urriaren 11ean, larunbata, Andaluziar etxe eta elkarte ezberdinen elkarleku izango da herria. Egun osoan zehar ekintzak izango direla iragarri dute Semblantetik.

"García Lorca" Euskadiko Andaluzierren elkarten federazioaren baitan dauden andaluziar etxetako kideak izango dira zehazki honetara gerturatu direnak.

Goizeko 11:00etan topaketari hasiera emango zaio meza rozioerarekin. Jarraian, Semblante Rociero abesbatzaren emanaldia, Gasteizko "Raices del Sur" dantza taldearena eta Valen-



Ekainean Rocioko erromeria egin zuten Semblante Andaluzek Atsokabarran.

13:30ean agintariei harrera izango zaie eta bazkaria herrikoia Michelinek. Arratsaldean, "Al Andalus" abesbatzaren emanaldia, Gasteizko "Raices del Sur" dantza taldearena eta Valen-

tziaiko "Aires del sur" taldearen kontzertuarekin dantza egiteko aukera izango dute bertarrentzen diren guztiak. Semblantetik Michingeloren kirolgunea jendez lepo betetzeara espero da.



# El Torrejon eta Aduniaren emanaldiak

Dantza eta musika ikuskizun bana izan zituzten aukeran herritarrek larunbat arratsaldean

**Uztailaren 19 eta 20an Erketz Dantza Taldekoei egokitu zitzairen Burgoserainoko bidaia egitea. Asteburu honetan aldiz, Adrada de Haza herriko dantzariei tokatu zaie Lasarte-Oria bisitatzea. Erketz eta El Torrejon dantza taldeek emanaldi koloretzua eskaini zuten Manuel Lekuonako areto-nagusian, ordubete pasatxoko ikuskizunean. Ordu berean, Basaundin, Adunia taldeak auzoko bazterrak girotu zituen rock doinuak eta doinu zeltiarrak nahastuta.**

TXINTXARRI

**E**rketz dantza taldeak proposatuta, antzerki eta dantza programazioaren barneko emanaldia eskaini zuten Burgoseko "El Torrejon" folklore taldeak larunbat iluntzean Manuel Lekuonan.

Erreterian hartu zuten ostatu asteburuan eta larunbat eguerdian, herrira etorrita, marmitako bazkaria egin zuten Arrikkalleta elkartearen arratsaldeko saioaren aurretik.

Emanaldia bera ikusgarria izan zen, Adrada de Haza herriitik gureru etorritako 49 neska-mutilek Gaztelako dantza tipikoak oholizaratu zituzten jantzi koloretzuek soinean zeramatzelata.

Bi bloketan banatutako ikuskizuna izan zen. Lehenengo ordu erdian El Torrejonek egin zuen dantzan, baina atsedean hartzeko 10 minutu baliatuz, Erketz Dantza Taldeak "Gasteizko zortzikoak" eskaini zuten Manuel Leku-

nako areto nagusian.

Emanaldi osteko afaria Semblante Andaluzen egin zuten eta igandean Burgoseko lagunei Donostia hiria erakusteko aprobetxatu zuten Erketz taldeko dantziari eta musikariei. Bidaia honetan, musika, dantza eta turismoa batera egiteko aukera izan zuten.

## Adunia Basaundin

Kultur Kale Zikloarekin amaitzeko beriz, Adunia taldeak kontzertua eskaini zuten Basaundin auzoan. Doinu zeltiarrak rock-arekin nahastu zituzten eta giro polita jarri zuten larunbat arratsalde eguzkitsuan. Bibolina, bakua, gitara, tirulua, batera eta gaiten laguntzaz, dantzan jarri zituzten auzoko bizilagun txiki-oxoak.

Emanaldi honekin amaitu da honezko Kultur Kale Zikloaren zirkuitua, hainbat estilotako musikak eta leku ezberdinetako jendeak bisitatu Lasarte-Oria hilabete hauetan.



Burgoseko jantzi koloretzuek soinean, bertako dantza tradiziionalak eskaini zituzten El Torrejon taldeak Manuel Lekuonan.



Adunia taldearen rock eta zeltiar doinuek girotu zuten Basaundin auzoa larunbat arratsaldean.

## Urriaren 11n ospatuko dute Pausoka Eguna

**U**rriaren 11n ospatuko du Pausoka elkarteak bere egun handia, Hernaniko Atseginge plaza. Goizeko 10:00etatik hasita eta gaua iritsi bitarte ekintzak betetako egitaraua antolatu dute. Egun horretan biltzen duten diru guztia tratamendu bereziak behar dituzten Pausokako umeentzat izango da.

Behar bereziak dituzten haurren guraso talde batek sortu zuen Pausoka elkarte, 2012ko martxoan. Egoitza nagusia Hernanin daukate, baina inguruko herrietako hainbat familia ere badaude bertan. Lasarte-Oriako familia batzuk ere badaude Pausoka Guraso Elkartearen. Ostriral arratsaldean agerraldia egin zuten Okendo plazan, 18:00etan. Familia horietako hainbat kidek egin zuten agerraldia: Juana Mari Beitia eta bere seme Ametsek, Belen Merchane eta Aitor izeneko

semeak, eta Lourdes Palacios eta Lucia alabak.

Hiru familiatako kide horiek eman zituzten Urriaren 11n ospatuko den jaiari buruzko xehetasunak. Lourdes Palaciosék hitz egin zuen elkartearen izenean, bera baita Pausokako diruzaina.

Palaciosék aurreratu zuen prentsaurreko bat emango dutela Urriaren 1ean Pausokaren egoitza nagusian, Pausoka Eguna iruzteko buruzko xehetasun gehiago emateko asmoz.

## Egitarau zabala

Goizeko hamarretan hasiko dira ekintzak; aurrekoa dantza irekiko dute Pausoka Eguna, Gudariaren plazan. 10:30ean kalejira egingo dute txustalderen laguntzaz Atseginge plazazina eta 11:30ean tallerak hasiko dira: kirolak, janari osasungarriak, puzgarriak... 13:00ak arte.



Pausoka elkartearen dauden Lasarte-Oriako familietako kideak, ostriral arratsaldean Okendo plazan egindako agerraldian.

Ondoren, indarrak berri-tzeko paella herrikoia egingo dute, 14:00etan. 16:30ean emanaldi bat emango dute Berdinen neskatilak, eta 17:00etan, Atseginge plaza alaituko dute Porrotzek eta Ane Piratak. Handik bi ordu-

ra, Laurobak kontzertua eskainiko du.

Txoznak egun osoan zehar egongo dira irekita, 20:30ak arte. Bildutako diru guztia Pausokako haurrentzat izango da, beharrezkoak dituzten tratamendu bereziak

egin ahal izateko. Antolatzaileek Lasarte-Oriako biztanleak animatu eta gonbidatu zituzten urriaren 11n Hernaniko Atseginge plaza joateko, Pausoka Egunerako antolatu diren ekintza desberdinez gozatzera.



## BOLA-JOKOAK

## Santi Garcia eta Martin Egañaren oroimenez

Jesus Lasa eta Txaro Galán herritarrak izan dira XI. edizioko garaileak

Gipuzkoa mailako txapelketa, Lasarte-Oriakoa eta emakumezkoena egin zen igande goizean Michelingo bolatokia. Herritar bolariak bakarrik ez; probintzia osoko jendea ere hurbildu zen Santi Garcia eta Martin Egañaren omenez urtero egiten den txapelketara, aurren hamaikagarren aldiz.

## TXINTXARRI

Jesus Lasa lasarteoriatarra izan zen jaun eta jabe atzo goizean Gipuzkoa mailako sailkapenean eta baita herritarrenean ere, ondorioz, txapel-dun bikoitza izan da Garcia eta Egañaren XI. Oroimezkoan.

Probintzia mailakoan 30 birla etzanarazi zituen Lasak. Bigarren egin zuen Juan Goenagak 22 bota zituen, hirugarren Benito Loiteguy izan zen eta laugarren berriz, Jose Cruz Aranburu.

Herritarren arteko sailkapenean ere Jesus Lasa izan zen nagusi, Joxean Montes eta Inaxio Oteagiren aurretik.

Azkenik, zazpi biletara egindako proban Antonio Miner gailendu zen Marcelino Agirre eta Joxean Montesi aurrea hartuta eta emakumezkoen proba Txaro Galanek irabazi zuen.

## Sariketa eta eskerrak

Ohi bezala, goi mailako elikagaiak eta orogarriak eraman zituzten saridunek etxera Maria Dolores Solanoren eskutik, Martin Egaña zenaren alargunaren eskutik.

Aurtengoa Rachel Marinnek, Santi Garciaen alargunak, ezin izan zuten tamalez saribanaketen egon.

Hurrengo urterari begira, jokalarien partetik aurtengoaren pareko babesa jasotzea espero dute antolatzaileek eta txapelketako parte-hartzaile guztiei esker ona adierazi nahi izan zieten antolakuntzan aritu ziren lagunek.

Hogei bat jokalarri giro ederrean ibili ziren bolotara jokatzen goiz osoan zehar eta bolatokia bertaratutakoek goiz pasa polita egin zuten hiru orduko jardunaldia osatuta. Hurrengo urtean XII. edizioa egingo da.



Lehiaketa amaitu ostean talde-argazkia atera zuten Michelingo bolatokia saridun guztiek.



Maria Dolores Solano.



Joxean Montesez bigarren egin zuen herriko sailkapenean.

## FUTBOLA

## Ostadarreko neskek ere hasi dute bidea

Azken urtean taldea osatzeko arazoak izan badiotzute ere, azkenean atera dute nesken lurralde mailako taldea. Ligako lehen jardunaldian 0-2 galdu zuen Antigua Luberriren aurka, baina garaipena da jadanik euren-tzat berdegunean egote hutsa.

Denera 17 jokalariko plantilla lortu dute, hiru ate-zainekin. Larunbat arratsaldean Michelineen jokatutako partidaren ordea, 14 jokalarri soilik deitu ahal izan zituzten Amets Aguayo entrenatzaileak eta Julien Ormazabal laguntzaileak ezken egunotan taldera batutako jokalarien fitxak ez direlako garaiz tramitatu.

## Estreinaldia, porrotarekin

Beroak eta aukituzko aldaketarik ez edukitzeak min eman zion gorri kolorez jokatua zuen Ostadarri. Gainera, lehen



Ligako lehen partidua 0-2 galdu zuten Michelineen Antigua Luberriren aurka.

zatiaren hondarrea egin zieten donostiarrak gola eta moralki kolpe gogorra izan zen herriko nesken-tzat. Neurketako bigarren eta azken gola aldiz, bigarren zatiko 25. minutuan sartu zuen Antigua-Luberrik.

"Gure helburua egiten dugunaz gozatzea da, eta gozatzea lortzen badugu, ziur emaitzak ailegatuko direla.

Itxura ona eman nahi dugu eta lan eginez lortu daitekeela uste du, baina oraindik goiz da, hila bete bakarria baitaramagu entrenatzen", adierazi du Amets Aguayo taldeko prestatzaileak.

Ostadarreko arduradunek adierazi dutenez, atak irekita dituzte herriko taldean jokatua nahi duten emakumeek. Intereza duten guztiek Ostadarren

Geltoki Kaleko bulegoan galdetu dezakete edo astearte, ostegun eta ostiraletan 20:30etan Michelingo kirol-guneetik pasa daitezke entrenamendu batera.

## Ohorezko Erregionalak

Oherozko Erregional mailari dagokionez, denboraldiko lehen porrota jaso zuen Ostadarrek Elgoibarren aurka. Urdin-beltzek 2-0 galdu zuten Mintxeta futbol zelaian eta hiru partidaren ostean lau puntu zakuratu, sailkapenean erdikaldean kokatuta daude herritarrak.

## Futbol Eskola

Datorren asteazkenean, urriaren lehen, Ostadar SKT-k antolatzen duen futbol eskola hasiko da. 100 neska-mutil bilduko dira Michelingo futbol zelaian urte osoan zehar. Saioa arratsaldeko 18:45etik 19:45era izango da.

## GIMNASTIKA

## LOKEko neskek hasi dituzte entrenamendu saioak

Herriko klubak jakinarazi du ekin diela 2014/2015 denboraldiko gimnastika-eritrikoko entrenaduei.

Senior, jubenil, kadete, infantil, alebin eta benjaminek irailaren 11n, larunbatez osatu zuten lehenengo lan-saioa. Aurreberjaminen talde batek aldiz, urriaren lehen, asteazkenean hasiko du ikasturtea eta besteak aldiz ostiralean. Orduetgia honakoa izango da, asteazkenean 18:30etatik 19:30etara eta ostiralean 17:30etatik 18:30etara. Saioak udal-kiroldegian egingo dira. Apuntatzeko interesa dutenek 676 872 029 telefonora deitu dezakete (Maite).





Ilgandean ospatu zen Argia Eguna Usurbilen, bezperan kontzertua eskaini zuten Euskal Herriko musikari ezagunek herrian.



Mikel Urdangarin, Anari, Petti, Alboka, Berzaitz... Musikari handiak oholizatatu ziren.

## Argiaren aldeko doinuak

### 200 bat lagun bildu ziren ostiralean Manuel Lekuonan

**Argia aldizkaria sostengatzeko kontzertua izan zen ostiral gauekoa. Larunbatean Usurbilen ospatuko zen Argia Eguna-  
ren bezperan egin zen emanaldia, aldizkaria eta udalerriarekin harremana estutu asmoz eta Argiak egiten duen euskarazko kazetaritza librea babesteko helburuarekin.**

JON ALTUNA EGITEGI

Estitxu Eizagirre Argiako zuzendariak kantaldiari ekin aurretik eskerrak eman zizkien musikariei, Argia diruz zein irakurritz laguntzen dutenei eta Lasarte-Oriako Udalarik kontzertua antolatzeko erraztasunak emateagatik.

Erlorjuan 22:00ak pasatxo zirenean hasi zen ikuskizuna Imanol Ubeda Bide Ertzean taldeko kidearen eskutik. Deabruak Teilatuetan taldearen pieza pare bat bakarlanean jo ostean, Jon Basaguren gasteiztarak hartu zion lekukoa. Izaki Gardenak taldeko kideak ltsasargiak azken laneko "Ni naiz" kantua jo zuen gitarra akustikoarekin eta pianoa eta ahotsaren indarra soilik, bihotzera ailegatzeko nahikoa dela erakutsi zuten Estitxu Pinatxok.

Iparraldera jauzi eginda, Pierre Paul Berzaitzek Imanol Larzabal laguna izan zuen gogoan Xabier Leteren hitzen

bidez. Zuberoako doinuek goxatu zituzten kontzertura gerturatu ziren 200 lagunuen belarriak.

Anari oholizatzearekin batera ileak lastu zitzaizkon bati baino gehiagori. Ahots urratuarekin kultur-etxeko ikus-entzuleen arimak uzkurtu zituen "Efemerideak" eta "Eskerrak ahulak garen" kantuen bidez.

Tonuz erabat aldatuta, Alboka boskoteak, Allan Griffn alboka-jole irlandarra buru, doinu biziak utzi zituen areto nagusian akordeoi, gitarra, alboka eta bibolinak lagunduta. Erritmo ezberdinarekin, amasa eman zion emanaldiari eta azken aldiz Argia Eguna Goizuetan ospatu zen hartan zinean (egungo gazte-txean) jotzen izan zirela kontatu zuten.

Petti nafarraren txanda iristearekin batera, iritsi bazen iritsi, bozgorailuak soberan zeudela konturatu zen entzu-

lea. Ahots indartsuz, kanta propio bat eta Leonard Cohenen bertsio bat interpretatu zituen maisutasun handiz.

Karteeliko izenik ezagunaren txanda iritsi zen beratarren atzetik. Mikel Urdangarin ohi bezala, gitarren konpainian ahots goxoz jo zituen bizpahiru kantu, Kirmen Uriberen letrekin osatutakoa horietako bat.

Gaua bertsioekin jarraitzeko edo, Anarik Bob Dylanen "Girl from the north country" edo "Iparraldeko neska" kantuen bertsio moduko bat egin zuten eta Jon Basagunek Ruper Ordorikaren "Ene Begiek" bertsionatzeko hautua egin zuten.

Berzaitz, Petti, Pinatxo, Urdangarin eta Albokak "bis" bat egin ondoren, denek batera Pierre Paul Berzaitzen "Baratze Bat" abestu zuten 200 entzuleekin batera.

Artista guztiek eskertu zieten ikusleei gerturatu izana eta Manuel Lekuonak txalo-zaparrada luzea eskaini zien musikariei. Batzuek eta besteek lortu zuten emanaldiak aurrez zuten helburua, Argiaren aldeko mezua lau haizetara zabaltzea.



Txalo-zaparrada handia jaso zuten artistek emanaldi amaitzeko "Baratze Bat" kantua elkarrekin abestu ostean.



Argia Egun bezperako argazki eta bideoa txintxarri.info webgunean daude ikusgai.

## Agenda

### Asteazkena 1etik 8ra



### Nagusien omenaldian hamaika ekintza

Asteazkenean ekingo diote herriko nagusiek ekintza egitarau bereziari. Asteazkenean banderaren albatzearekin batera txapelketei hasiera emango diote. Aste osoan zehar, antzezlanak, kontzertuak eta kirola egiteko tartea ere izango da. Larunbatean hirugarren urtez martxa regulatua egingo dute bikoteka herrian zehar prestatutako ibilbidean. Igandean bazkari erraldoia egingo dute Michelingo frontoian. Ekintza guztietan parte hartzera animatzen dituzte herritarrak.

naldiaren egitarauaren baitan. Sarrera doan da.

### Ipuin-kontalaria

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astelehena 6, 18:00etan**  
Pello Añorgarekin ekingo zaio ikasturteko ipuin-kontalarietari haur liburuetan. Lehenengo saioa 4-5 urteko umei zuzenduta.  
**Astearte 14, 18:00etan**  
Kontukantioen txanda ipuinaren orduan. Haur liburuetan 6, 7 eta 8 urteko umei zuzendutako saioa egingo dute herriko kontalariak.

### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Irailean zehar**  
Mundu Bat GKEK antolatuta Carmen Caballero argazkilariren Kolonbiako egoerari buruzko argazki erakusketa ikusteko azken egunak.

### Bestelakoak

**HERRIAN ZEHAR**  
**Urriak 12,**  
Buruntaldeko herrien ibilbideen eguna izango da. Honetan ohi bezala herrien artean haubitze ibilbide egiteko aukera izango da.

### Usurbil

### Aginagako festak

**ERDIGUNIA**  
**Asteburuan**  
San Praxiku jaiak ospatuko dituzte Aginagan.

### Lasarte-Oria

#### Musika

**BRIGITARREN KOMENTUA**  
**Osteguna 2, 18:00etan**  
Ordizia eta Biyak Bateko abesbatzek emanaldi irekia eskainiko dute Nagusien Omenaldiaren baitan.

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Igandea 5, 12:30ean**  
Biyak Bat egoitzako abesbatzaren emanaldia izango da. Honetan Amaya Gonzalez Caballero herriko dantzari entzutetsuaren parte hartzea izango da.

### Hitzaldia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astearte 30, 19:00etan**  
EHBilduk antolatuta "Europako asparen mugimenduk ezkerretik" mahai inguru. Pat Rice Irlandako Sinn-Fein alderdiko mahai nazionalako kide ohiak, Pernando Barrena EH Bilduko kideak eta Kataluniako CUPeko ordezkari batek parte hartuko dute.

### Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 3, 19:00etan**  
"Cotillas" antzezlanaren ikusteko aukera

izango da Nagusien Omenaldiaren egitarauaren baitan.

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Larunbata 4, 18:00etan**  
"Kapsulak" Markelife taldearen haur ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Musika eta kontzertua alde batek eta antzerkia eta eszenaratzera uztaizten ditu ikuskizunak. Sarrera 2,70 euro; leihatilan, 3 euro.

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Astelehena 6, 19:00etan**  
"Grupo molestias clownicas" lana ikusi ahal izango da Nagusien Ome-

## Herritarren txokoa

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txirrinda, bi mugikor, bi pultsera bata urrezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarritakoak. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainei Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

#### Xumela entseguak

Xumela korak entseguak hasi ditu Landaberri BHI erakinean. Entseguak 19:30etik 20:30era egiten dituzte eta honetan parte hartzea irekia dela gogoratu nahi dute sustatzaileek ikasturte hasiera honetan. Euskara ikasten ari diren herritarrak bertaratzea animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta euskaraz aritzeko lagun berriak egiteko leku aproposa delako.

#### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, irailaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

#### Arropa jasotzeko azken eguna

Udako Txokoetan aurkitutako arropak jasotzeko azken eguna urriaren 3a izango da. Aurkitutako guztia Ttakuneko bulegoan dago, beraz bulegoaren ordegutegian 9:00-13:00 eta 16:30-17:30 bitartean pasa beharko da jasotzera.

#### Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendun igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

#### Eskutitza

Ibon Fernandez Iradik kalean behar du. Giza eskubideen urrakertak ez!

Ibon larriki gaixo dago; Esklerosi azkoitza oso garatu dauka. Baina Ibonek espetxeraturik jarraitzen du Frantziar Estatuan.

Bai Espainia bai eta Frantziako legearen arabera gaixotasun larri eta sendaezinak dauzkaten presoak kalean egon behar dute, beraien gaixotasuna ahal den hobekien tratatzeko.

Ibonek, Bere egoera espetxeratzearrekin bateraezina dela bistakoa izaki, legeari eutsi eta kondena eteteko eskaera egin zuen. Epategiak ere hori berretsi zuen ekainaren 20an plazaratutako deliberoan. Baina, bi baldintza jarri zizkion zigorra eteteko. Lehenik, Estatu frantseseko lurraldean geratzeko duen debekua deuseztatzea lortu behar zuen eta, behin hori eginda, ezin izango zuen Pirinio Atlantikoetako departamenduan geratu.

Aste honetan, irailak 25-ean epaiketa berri bat izan da eta azken erabakia zain aurkitzen gara. Lasarte-Oriako Sortutik ebazpen posible bakarra ikusten diogu epaiketa honi: Ibon inolako baldintzarik gabe aske uztea, egoera onean artatua izan dadin. Legea eta giza eskubideak bete besterik ez luke egingo auzitegiak ebazpen honekin.

Frantzia eta Espainiar estatuak, beraien legedia urratzeaz aparte, giza eskubideak urratzen ari dira preso gaixoak espetxeetan mantenduz. Eskubideen bortxaketa, sufrimendua eta krudeltasuna erabiltzen ari dira beraien estrategia politikorekin (edo estrategia politiko ezaren) baitan. Ezin ditekete onartu pertsonen duintasunarekin horrela jolastea.

Lasarteoriatar guztiok, herritar guztiok, eragiten digu eskubide urraketa honek. Lasarte bati oinarritzko giza eskubideak ez dira errespetatzen ari, eta, bakoitzaren kolore politiko edo ezin delarik ere ezin dezatego egoera hau onartu. Gero eta justuagoa izan nahi duen gizarte batek ezin dezake horrelako egoerarik onartu.

Hau dela eta, Lasarte-Oriako Sortutik Herritar guztiok deia egiten dizuegu datozten egunetan gai honen inguruan antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera, eta, bakoitzak bere esparruan giza eskubide guztiak bete daitzen lanean jarraitzeko gonbitea lutzaten dizuegu.

Ibon Askatu!!! Preso Gaixoak etxera! Giza eskubideen urrakertak ez!

### Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Stratford ingeles akademia Cambridgeko azterketen ikastegi prestatzaile ofiziala

# Lasarte-Orian ingeleseko klaseak ematen 2003. urtetik

Cambridgeko azterketen ikastegi prestatzaile ofiziala da Stratford akademia

*Akademiaren izena 'Stratford' izatea ez da kasualitatea. Badago izen bereko herri txiki bat Ingalaterra erdialdean. Herri horretan jaio zen historiako idazle eta antzerkigile onenetako bat: William Shakespeare. Kultura eta antzerkia zainetan daramatza Stratford herriak. Giro hori ere arnastu daitezke Lasarte-Oriako akademian. Ingelesa irakasteko metodo "dibertigarri" asko erabiltzen dituzte; horietako bat da ikasleek bertako kultura, zine, antzerki eta musika ezagutzuz ikastea ingelesez hitz egiten.*

TXINTXARRI

A tsobakarreko Caddie enparantzán, 9. zenbakian dago kokatuta Stratford akademia, Lasarte-Oriako sarreran. Akademiara sartzeko tinbrea juo behar da, eta 1º B pisura igu.

Toki txikia da, baina hori ez da eragozpena, bertutea baizik. Ainhoa Dominguez irakasleak aipatu ditu akademia txiki bat izatearen abantailak: "Ikasleekiko arreta pertsonalizatuagoa da, klaseko giroa gertukoagoa, klaseak parte-hartzaileagoak dira taldeak txikiak direlako eta ikasle bakoiztaren beharrak eta aboluzioa gertuagotik jarraitzen dugu".

Stratford akademiak bado beste berezitasun bat: Ainhoa Dominguez bertako irakaslea da, eta jabea ere bai. "Egunero akademiaren nagoenez, hobeto jarraitu ditzaket ikasleen gorabeherak, euren zalantzak argitu... Garrantz-tsuoa da jabea ikastegian egotea, nire uestez".

## Prestatzaile ofiziala

Cambridgeko azterketen ikastegi prestatzaile ofiziala da Stratford akademia. Klase bereziak eskaintzen ditu KET, PET, FCE (First Certificate in English) eta CAE (Advanced) tituluak eta zerkeat prestatzeko helburuarekin.

Bi irakasle ditu herriko Stratford akademia: Ainhoa Dominguez eta Cristina

Miguel. "Esperientzia asko" dute biek, eta "prestatkuntza maila altua" daukate, hainbat urtetan aritu direlako irakasle lanetan 2003. urtean Lasarte-Orian hasi aurretik.

"Gure ikasleek egiten dituzten azterketen aprobatur maila oso altua da", nabarmendu du Cristina Miguel irakasleak.

Erraztasunak ematen dizkie akademiak ikasleei, Ainhoa Dominguezek esan duenez: "Ikasleei doan egiten dizkiegu matrikulazio-erako eta ziurtagarrietako beharrezko tramite guztiak".

## Eskaintza zabala

Goizez, eguerdiz eta arratsaldez ematen dituzte klaseak bi irakasleek: "Ikasleen beharrezanetara egokitzen gara eta ordutegi eskaintza zabala daukagu", azpimarratu du Ainhoak.

Adin guztietako pertsonen ikasten dute ingeleseko akademiaren: haur, nerabe eta helduek. "Haurrek ahoz ikasten dute hizkuntza gehienbat, jarduera dibertigarrien bitartez: jokoak, kantuak, abestiak...", azaldu du Cristinak. "Nerabeen ardua nagusia azterketak eta ziurtagarriak izan ohi dira, baina jolas-giroa bazertertu gabe laguntzen diegu gero eta konplexuagoa den lan-munduan lehiatzeko kurrikuluan on bat osatzen".

## Bakarkako klaseak

Stratford akademiak badauki eskaintza berezi bat: 'One to one' edo



Cristina Miguel eta Ainhoa Dominguez dira Stratford akademiako bi irakasleak.

bakarkako klaseak. Ikasleek talde baten dinamika jarraitzeko aukera edo denborarik eduki ezean, bakarkako klaseak eman ditzake. Ikasleen neurira prestatzen ditu klaseak Stratford akademiak, kontuan hartuta klase horiek eman nahi dituen pertsonak zeintzuk ordu eduki ditzakeen libre.


"Bakarkako klase horiek areagotu egiten dituzte titulu azterketak gainditzeko aukerak", Ainhoa Dominguez irakaslearen hitzetan. "Bestalde, inoiz ingelese ikasi ez edo eskola garaitik erabili ez dutenentzat ere abagune polita da era dibertigarri batean ingelese ikasteko.

Era berean, klase horien zentzua praktikoa ere bada, ingelese ezinbesteko bilakatu den jardueretan ongi moldatzeko trebatzen ditugulako ikasleek: bidaiatu, interneten nabigatu, filmak eta telesailak bertsiu originaletan ikusi...".

Bakarkako klase horietan ingeles espezifikoa ere ikasi daitezke: negozio edo turismo mundukoa. "Irakasten dugu negoziatzen, telefonoa erantzuten, mezu elektronikoa idazten eta turismo eta ostalaritza munduan aritzen ingelesez, besteak beste", zehaztu du Ainhoak.

## Irailetik ekainera

Irailen hasten da ikasturtea Stratford akademiaren, eta ekainean bukatzen da. Izen-emaitea irailen lezta-



Klaseetako mota guztietako euskarriak erabiltzen dituzte ikastea errazteko irakasleak.

egitea komeni den arren, Cristina Miguel irakasleak gogorarazi du "edozein unetan" matrikulatu daitezkeela ikasleak.

"Era guztietako materiala erabiltzen dugu klaseak emateko. Testu-liburuak erabiltzen ditugu, baina baita material multimedia ere: bideoak, Internet eta entzumen ariketak, besteak beste", azaldu du Ainhoa Dominguezek. "Garai berrietara egokitu ditugu irakasteko erabiltzen ditugun baliabideak".

Cristinak zehaztu duenez, "konturatu gabe" ikasten dute ikasleek, irakasteko

modua "entretengarri eta dibertigarria" delako gurean.

Ikasturtea dagoeneko hasita egon arren, izena eman nahi duen edo zalanztaren bat argitu nahi duen orok bide asko ditu Stratford akademiakoekin harenmantan jartzeko. 943 37 77 15 telefonora hots egin dezake, mezu elektronikoa bidalti dezake [academiastatford@gmail.com](mailto:academiastatford@gmail.com) helbidera, edo ikastegira bertara joan daitezke.

Web orrialdea ere badute: <http://www.academiastatford.com/ingles-lasarte.html>.

*Ikasturtea iraila eta ekaina bitartean izan arren, edozein unetan matrikulatu daitezke Stratford akademiaren ikasleak*